

**25/2014 FORU ARAUA, UZTAILAREN 9KOA, GASTATUTAKO ERREGAI
NUKLEARRA ETA HONDAKIN ERRADIAKTIBOAK INSTALAZIO
ZENTRALIZATUETAN BILTEGIRATZEAREN GAINEKO ZERGARI BURUZKOA**

(ALHAO, 81. zk., 14-7-18koa)

ZIOEN AZALPENA

Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak Ekonomia Ituna aldatzea erabaki du, besteak beste gastatutako erregai nuklearra eta hondakin erradioaktiboak instalazio zentralizatueta biltegiratzearen gaineko zerga adosteko.

Itun hori Arabako Biltzar Nagusiek berretsi dute, otsailaren 26ko 4/2014 Foru Arauaren, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren lehenengo erabakia berrestekoaren, bidez.

Ekonomia Itunaren 23 quinquies artikulua arabera, gastatutako erregai nuklearra eta hondakin erradioaktiboak instalazio zentralizatueta biltegiratzearen gaineko zerga itundutako zerga da, estatuak une bakoitzean ezarritako arau oinarrizko eta formal berberen bidez eraenduko dena.

Aurrekoaren arabera, foru arau honen bidez gastatutako erregai nuklearra eta hondakin erradiaktiboak instalazio zentralizatueta biltegiratzearen gaineko zergaren erregulazioa Arabako Lurralde Historikoko zerga sisteman sartuko da, Arabako zerga sistema harmonizatzeko helburuarekin, haien erabilera ingurumenarekiko eta iraunkortasunarekiko eraginkorragoa eta begirunetsuagoa izan dadin, betiere Europar Batasunaren zerga, energia eta, noski, ingurumen politika arautzen duten oinarrizko printzipioekin bat etorritik.

1. artikulua. Izaera.

Gastatutako erregai nuklearra eta hondakin erradioaktiboak instalazio zentralizatueta biltegiratzearen gaineko zerga zuzeneko eta izaera errealeko zerga da. Bere zerga egitate osatzen duten eta foru arau honen 4. artikuluan aipatzen diren jarduerak zamatzen ditu.

2. artikulua. Araudi aplikagarria.

1. Ekonomia Itunaren 23 quinquies artikuluan xedatutakoaren ildotik, zerga foru arau honetan eta hura garatzen duten xedapenetan xedatutakoarekin bat etorritik eskatuko da.

2. Foru arau honetan ezarritakoak ez du ezertan eragotziko barne antolamenduaren osagai bihurtu diren nazioarteko itunetan eta hitzarmenetan xedatutakoa.

3. artikulua. Zergaren ordainarazpena.

Zergaren ordainarazpena Arabako Foru Aldundiari egokituko zaio, gastatutako erregai nuklearra eta hondakin erradioaktiboak biltegiratzen diren instalazioak Arabako Lurralde Historikoan daudenean.

4. artikulua. Zerga egitatea.

Zergaren zerga egitatea gastatutako erregai nuklearra eta hondakin erradioaktiboak instalazio zentralizatu batean biltegitratzeko jarduera izango da.

Zerga honen ondorioetarako, gastatutako erregai nuklearraren eta hondakin erradioaktiboaren biltegitratzea izango da beraien aldi baterako edo behin betiko ibilgetzean datzan jarduera oro, nola egiten den kontuan izan gabe. Instalazio zentralizatuak, berriz, material horiek, instalazio edo jatorri ezberdinetatik etor daitezkeenak, biltegitratu ahal dituen instalazioa izango da.

5. artikulua. Salbuespenak.

Ondoko jarduera hauek zergatik salbuetsiko dira: jarduera mediko edo zientifikoetatik datozen hondakin erradioaktiboak biltegitratzea, eta araudi nuklearraren pean ez dauden industriako instalazioetan gertatzen diren gorabehera berezietatik (Segurtasun Nuklearreko Kontseiluak hala izendatzen baditu) edo instalazio horietan detektatzen direnetatik datozen hondakin erradioaktiboak, jarduera handiko kapsulatutako iturri erradioaktiboaren eta iturri zurtzen kontrolari buruzko otsailaren 24ko 229/2009 Errege Dekretuaren 11.2 artikulua aipatzen dituen akordioaren esparruan kudeatzen badira.

6. artikulua. Zergadunak.

Zerga honen zergadunak dira Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 35. artikuluko 3. idatz zatian aipatzen diren pertsona fisiko edo juridikoak eta erakundeak, 4. artikuluan aipatutako jarduerak egiten diren instalazioen titularrak badira.

7. artikulua. Zerga oinarria.

1. Gastatutako erregai nuklearra eta hondakin erradioaktiboak instalazio zentralizatuaren biltegitratzearen gaineko zergaren zerga oinarria hau da:

- a) Gastatutako erregai nuklearrean dagoen metal astun biltegitratuak zergaldiaren amaieran duen pisuaren eta hasieran duenaren arteko aldea, kilogramotan emana.
- b) Biltegitratuta dauden jarduera handiko hondakin erradioaktiboek (gastatutako erregai nuklearra ez direnek) edo jarduera ertaina eta bizialdi luzea duten hondakin erradioaktiboek zergaldiaren amaieran daukaten bolumenaren eta hasieran daukaten bolumenaren arteko aldea, metro kubikotan emana.
- c) Zergaldian instalazioan biltegitratzeko sartu diren eta aurreko b) idatz zatian ez dauden jarduera ertaineko eta jarduera txiki edo oso txikiko hondakin erradioaktiboaren bolumena, metro kubikotan emana.

2. Zerga honen zerga egitatea osatzen duten jarduerak egiten diren instalazioetako bakoitzerako zehaztuko da artikuluko honetan definitutako zerga oinarria.

8. artikulua. Jarduera ertain, txiki eta oso txikiko hondakinen biltegitratze zentralizatuaren likidazio oinarria.

1. Jarduera ertain, txiki eta oso txikiko hondakinen biltegitratze zentralizatuan (7. artikuluko 1.c) idatz zatian aipatzen dena), likidazio oinarria ateratzeko, murrizpeneko K koefiziente biderkatzaile bat zerga oinarriari aplikatuko da, formula honen arabera:

$$LO = K \times ZO$$

Non:

LO: Likidazio oinarria.

ZO: Zerga oinarria.

2. K koefizientea formula hau aplikatuz aterako da:

$$K = \frac{V_{TE} + V_T \times f_T + V_{SE} \times f_{SE} + V_{LE} \times f_{LE} + V_{MS} \times f_{MS}}{V_{TE} + V_T + V_{SE} + V_{LE} + V_{MS}}$$

Non:

V_{TE} : Behin betiko biltegitratzeko sartzen diren hondakin trinkotu ezinen eta errautsi ezinen bolumena.

V_T : Behin betiko biltegitratzeko sartzen diren hondakin trinkogarrien bolumena.

f_T : Bolumena trinkotuz murriztearen faktorea.

V_{SE} : Behin betiko biltegitratu baino lehen errausten diren hondakin solidoen bolumena.

f_{SE} : Hondakin solidoak erraustuz murrizten den bolumenaren faktorea.

V_{LE} : Behin betiko biltegitratu aurretik errauspen tratamendua ematen zaien hondakin likidoen bolumena.

f_{LE} : Hondakin likidoak erraustuz murrizten den bolumenaren faktorea.

V_{MS} : Behin betiko biltegitratu baino lehen trinkotze eta errauste tratamendu mistoa aplikatzen zaien hondakinen bolumena.

f_{MS} : Trinkotzearen eta erraustearen tratamendu mistoaren bidez murrizten den bolumenaren faktorea.

3. Murrizpen faktoreek ondoko balioak hartuko dituzte:

Faktorea	Balioa
----------	--------

f_T	$\frac{1}{2,6}$
f_{SE}	$\frac{1}{12,1}$
f_{LE}	$\frac{1}{15,3}$
f_{MS}	$\frac{1}{7,8}$

9. artikulua. Zerga tasa eta zerga kuota.

Zerga oinarriari, edo likidazio oinarriari, 8. artikuluan ezarritakoaren arabera, ondoko zerga tasak aplikatzearen ondorioa izango da zerga kuota:

- a) 7. artikuluko 1.a) idatz zatian aipatzen den gastatutako erregaiaren biltegitratzean, tasa 70 eurokoa izango da metal astuneko kilogramo bakoitzeko.
- b) 7. artikuluko 1.b) idatz zatian aipatzen den hondakin erradioaktiboen biltegitratzean, tasa 30.000 eurokoa izango da hondakin erradioaktiboko metro kubiko bakoitzeko.
- c) 7. artikuluko 1.c) idatz zatian aipatzen diren hondakin erradioaktiboen biltegitratzean:
 1. Jarduera txiki eta ertaineko hondakin erradiaktiboentzat, 10.000 euro metro kubiko bakoitzeko.
 2. Jarduera oso txikiko hondakin erradiaktiboentzat, 2.000 euro metro kubiko bakoitzeko.

10. artikulua. Zergaldia eta sortzapena.

1. Zergaldia urte naturala izango da, salbu eta zergadunak 4. artikuluan jasotako zerga egitatea den jarduera eteten badu; kasu horretan jarduera amaitzen den egunean bukatuko da zergaldia.

2. Zerga zergaldiaren azken egunean sortuko da.

11. artikulua. Likidazioa eta ordainketa.

1. Zergadunek zergaren autolikidazioa egin eta kuota ordaindu beharko dute zerga sortu ondorengo lehenengo 25 egunen barruan, Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak ezarritako arau eta ereduaren arabera.

2. Apirileko, uztailako eta urriko lehenengo 25 egunetan, 4. artikuluan ezarritako zerga egitatea egiten duten zergadunek ordainketa zatikatua egin beharko dute aribideko zergaldiari dagokion likidazioaren kontura, Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak ezarritako arau eta ereduaren arabera.

Zerga oinarria zehazten duten magnitudeen arabera, zatikatutako ordainketa bakoitza egiteko epearen hasieraren aurreko hiruhileko naturalari dagozkionak, kalkulatu da zatikatutako ordainketa zenbatekoa, foru arau honen 9. artikuluari dagokion zerga tasa aplikatuz.

12. artikulua. Arau hausteak eta zehapenak.

Zerga honekin lotutako arau hausteak otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, eta Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 18ko 97/2008 Foru Dekretuak, zerga arau hauste eta zehapenen arautegia onartzen duenak, aurreikusitakoarekin bat etorritik sailkatu eta zehatuko dira.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Xedapen orokor hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean eta 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Bigarrena. Gaitzea.

Arabako Foru Aldundia gaitu egiten da xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.

OHARRAK